

EUSKADIKO KULTURA ETA SORMEN
BARRUTIARENTZAKO (BDCC) KOMUNIKAZIO-
AHOLKULARITZA KONTRATATZEKO OINARRI
TEKNIKOEN AGIRIA. JAKINTZA INDUSTRIEN ETA
TEKNOLOGIA APLIKATUEN KLUSTERRAREN
(GAIA) BARNEAN HARTUTAKO ERAKUNDEA DA
BDCC.



1. XEDEA

Agiri honen xedea GAIA KLUSTERRARI (BDCCren bere proiektuan) BDCCk diseinatutako komunikazioko aholkularitza-zerbitzuaren estrategia gauzatzen jarraitzeko enpresa bat edo bi enpresa hautatzea da (batez ere datorren 2026. urtean BDCCren komunikaziorako lehenetsitako arlo nagusietan). BDCC proiektua GAIA KLUSTERREAN dago, eta kluster hori da baldintza-agiri honen erakunde kontratatzailea. Hemendik aurrera, BDCC edo BDCC taldea aipatzen denean, GAIA KLUSTERRA erakunde kontratatzailearen proiektua dela ulertuko da.

Agiri honen xedea komunikazio-arloan BDCCren taldeari aholkularitza emango dion eta komunikazio-arloan aditua den enpresa baten edo biren kontratazioan datza, eta horrekin batera beharrezko ekintzak martxan jarriko dituen BDCCren komunikazio-estrategian lehenetsitako ildoak burutzeko beharrezko ekintzak abiaraziko dituen.

Informazio gehiago nahi izanez gero: GAIAREN webgunea

2. ZERBITZUAREN IRISMENA

Aurreko ataletan adierazitakoaren arabera, asmoa da aholkularitza aditua emateko zerbitzua kontratatzea BDCCren taldeari honako helburu hau lortzen laguntzeko: BDCC KSI Kultura eta Sormen Industrien euskal sistemaren erreferentzia bihurtzea euskal sektore kultural eta kreatiboko enpresa eta profesionalekin konektatzeko eta haiei laguntzeko ekintzailatzeko, lankidetzako, berrikuntzako eta lehiakortasuna hobetzeko beren prozesuetan.

Ondoko premia-eremu hauetan kontratatuko da aholkularitza aditua, eta LOTEKA kontratatuko da:

1. LOTEKA: Aholkularitza-zerbitzua komunikazioan eta BDCCren ondorengo komunikazio-ekintzen ezarpena.

Honako lan hauetan emango dio aholkularitza eta lagunduko dio enpresa esleipendunak BDCC taldeari:

- Prentsa-oharrak egiten, eta xede-publikoa erakartzeko egiten diren kanpaina edo komunikazioak diseinatzeko eta argitaratzen gaur egun BDCCk dauzkan honako euskarri hauetan:
 - Webgunea: <https://basquedcc.euskadi.eus/>
 - Sare Soziales kudeaketa (Youtube, Instagram eta LinkedIn (batezbeste hilean 20 post Sare Sozial bakoitzean)).
 - Post guztien irudien diseinua eta testuen eraketa.
 - Instagram, LinkedIn eta Youtube
- Landu beharreko komunikazioak egitea. Era berean, aholkularitza emango dio BDCC taldeari publikoaren segmentazioa komunikazioaren tipologia hori eskatzen badu.
- BDCCk antolatutako jardunaldiak garatzea (BDCC Ostegunak, BDCC Topaketak, Sendotze-Programaren amaiera...), baita BDCCren ordezkaritza duten ekintzak lehenestea ere, eta, horrekin batera, ekitaldi horietako bakoitzean transmititu beharreko mezuak edo indar-ideiak.
- Komunikazioaren ikuspuntutik partekatutako emaitzen ebaluazioa hileko komunikazio-txosten kualitatibo eta kuantitatiboaren bidez.
- BDCCren edukien estrategiaren koordinazioa CRMaren (Hubspot) erabileraren eta mantentzearen bitartez. Hubspot kudeaketa: mailing bidalketa (6 gutxienez hilean) eta kontaktuen kudeaketa.
- Instagram, LinkedIn eta youtube sare sozialetan Social Media Plan baliabidea inplementatzea.
- BDCCren ekimenen estaldura (BDCC Ostegunak 4 ekitaldi (argazki eta bideoekin), BDCC - Topaketak 4 ekitaldi (argazkiekin), gehi beste 6 ekitaldi/prestakuntza argazkiekin).

- BDCCren Sendotze Programari dagokionez: enpresen Pilulak egitea Sare Sozialetan (30 segundoko 30 bideo inguru) eta Sendotze Programaren klausura estaltzea (argazki eta bideoekin).
- Koordinaziorako hileroko bilerak aurreko hilabeteko sare sozialetako datuen txostenekin eta komunikazio-inpaktuekin.

Sortu beharreko emaitzak:

- * Komunikazio-ekintza guztien inpaktu-txosten bat sortzea (sare sozialak, marketin-emaila, prentsa-oharrak, ekitaldiak...).
- * Euskaraz zein gaztelaniaz landuko dira argitalpen eta eduki guztiak. Eta baliteke zeinbait ingelesez ere.

2. LOTEA: MAGAZINE BDCC ataleko edukien mantentze-zerbitzua.

- Edukiak sortzea BDCCren webgunean MAGAZINE deitutako atalean.
 - o Helburua: euskal KSIek sustatuko jarduera eta eduki profesionalei agerikotasuna ematea, eta industria horietako talentua balioan jartzea.
 - o Eduki mota: elkarrizketak sortzea, Euskadiko KSietako enpresei eta erreferentziazko beste agente batzuei buruzko erreportaje eta albisteak.
 - o Edukia sortzeko adierazleak:
 - Elkarrizketak: 4 elkarrizketa 2026an
 - Erreportajeak: 4 erreportaje 2026an
 - Albisteak: 12 albiste 2026an

* Euskaraz zein gaztelaniaz izango dira argitalpen eta eduki guztiak. Batzuetan, ingelesezko bertsio bat ere egon liteke.

3. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Nahitaezkoa izango da:

- a) Laneko eta Gizarte Segurantzako araudia betetzea:

Esleipendunak, kontratua betetzean, Europar Batasuneko eta estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo estatua lotzen duten nazioarteko zuzenbideko xedapenetan ezarritako gizarte- edo lan-alorreko betebeharrak aplikagarriak beteko ditu.

- b) Hizkuntza-baldintzak:

BDCCren eta esleipendunen arteko harremanetan euskara erabiliko da normalean. Kontratua betetzeari dagokionez, honako hau da euskara "normalki" erabiltzea:

- Ahozko komunikazioetan, kontratua betetzeko eginkizunetan BDCCra jotzen duten langile euskaldunek euskaraz egingo dute hasiera batean. Botere esleitzailerak kontratuaren gauzatzeari atxikitako langileei euskaraz zuzentzen bazaie, eta langile horiek euskaraz behar adinako ezagutzak ez badituzte, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu beharrezko bitartekoak edo euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileak, kontratua gauzatzearen ondorioz BDCCrekiko harremana euskaraz izateko.
- Idatzizko komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, igorleak euskara soilik aukeratu ezean.

4. METODOLOGIA

Harremanetarako pertsona bat edo bi hautatuko dituzte kontratatutako enpresek, BDCCren komunikazioan aditu direnak, eta haiek izango dira zerbitzu bakoitzaren arduradunak:

1. LOTEA: Aholkularitza-zerbitzua komunikazio-aholkularitzan oro har eta BDCCren komunikazio-ekintzen ezarpenenean.
2. LOTEA: MAGAZINE BDCC ataleko edukien mantentze-zerbitzua:

BDCCren taldea eta 1. LOTERAKO hautatutako pertsonak, komunikazioan adituak, hilean behin bilduko dira online do presentzialki BDCCren bulegoetan (Uribitarte pasealekua, 3. solairua 48001 - Bilbo Bizkaia), honako hauetarako:

- Komunikazio-arloan erabakiak hartzea.
- Ekintza-plana definitzea eta komunikazio-ekintza konkretuen emaitzak ebaluatzea, eta komunikazio-ekintza etengabeen jarraipena egitea.
- Social Media arloan izandako aurrerapausoak berraztertzea eta eduki berriak sortzea.

BDCCren taldea, 1. LOTERAKO kontratatutako enpresaren komunikazio-arloko pertsona adituak eta 2. LOTERAKO hautatutako pertsonak, BDCCren webgunearen Magazine ataleko edukien sorkuntzan adituak, hilean behin bilduko dira online edo presentzialki BDCCren bulegoetan (Uribitarte pasealekua, 3. solairua 48001 – Bilbo Bizkaia), honako honetarako:

- MAGAZINE atal berriaren edukien sorkuntzan izandako aurrerapausoak berraztertzea.

5. BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Proposamenean zehaztu egin beharko dira zerbitzuari ekiteko eskuragarri dauden baliabideak, baliabide teknikoak nahiz giza baliabideak. Lizitatzailerak pertsona bat izendatu beharko du espresuki, eta pertsona hori izango da zerbitzuaren arduradun nagusia. Honako eginkizun eta erantzukizun nagusi hauek izango ditu:

BDCC taldearekin solaskidea eta kolaboratzailea izango da.
Komunikazio-arloan BDCCren taldeari aholkularitza eskaintzen dion pertsona izatea, baita komunikazio-ekintzen ezarpenaren arduradun ere (BDCCren komunikazio-estrategiari jarraikiz. Dena den, egunerokoan beste pertsona bat edo gehiago egon ahalko dira taldean.

BDCC taldearekin hilean behin izango diren bileretara bertaratzea (bere enpresako pertsona adituarekin batera).
BDCCren komunikaziorako hobekuntzak identifikatzea. Soluzioen proposamena.
Komunikazio-ekintzen aurrerabideari buruz informatzea eta komunikazio-ekintzen emaitzei buruzko informazioa etengabe eguneratzea.
Zerbitzuaren jarraipena eta kontrola egingo du, gauzatzeko epeak bermatuz.

Lizitatzailerak izendatutako pertsonak:

Urte osoan emango du zerbitzua eta dagokion zerbitzua eskaini ahaliko duela ziurtatuko du. Hautatutako pertsonaren *curriculum vitae-a* erantsi beharko da, esperientzia eta enpresa esleipendunarekiko kontratu-lotura barne. Profil honetarako komunikazio esperientzia duen pertsona bat nahi dugu, batez ere KSIen arloko esperientziaduna. C1 maila egiaztatuta duen euskara eskakizuna aurkeztu beharko da.

Lizitazio honi dagozkion zerbitzuak eskaini ahal izateko gogoia eta prestasuna balioetsiko da, baita antzeko prozesuetan parte hartu izanaren erreferentziak eta esperientziak ere, tokikoak edota nazioarteko erreferentziak.

6. GAUZATZEKO EPEA

Gauzatzeko epea kontratua sinatzen denetik 2026ko abenduaren 31 artekoa izango da.

7. ZERBITZUAREN JARRAIPENA

Garrantzi berezia izango du garatutako komunikazio-ekintzak BDCCren taldeari jakinaraztea. Modu horretan, enpresa esleipendunek nahitaez egin beharko diote BDCCren taldeari komunikazio-ekintzen jarraipenaren hilean behingo txosten eguneratu bat, BDCCren komunikazio-estrategiari jarraikiz, eta, bereziki, lehenetsitako komunikazio-ekintzei dagokienez.

8. KONFIDENTZIALITASUNA

Pertsona eta enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du BDCC taldeak ematen dion informazio guztia, edo beste iturri batzuetatik jasotakoa, isilean gordetzeko, eta ez dio inolako pertsona fisiko edo juridikori emango, salbuespen bakarra lanen ardura duten plantillako langileak izanik, hirugarrenek ez baitute informazio horren berri izan behar, ezta arduragabekeriagatik ere. Konpromisoa hartzen du, halaber, BDCC taldeak (GAIA KLUSTERRA) ematen dion informazioa, edo beste iturri batzuetatik jasotakoa, ez erreproduzitzeko, eraldatzeko eta, oro har, erabiltzeko, kontratatutako zerbitzuak behar bezala betetzeko ez bada.

9. BALDINTZA EKONOMIKOAK

Deskribatutakoaren arabera, honako hauek osatzen dute aurrekontua eta hari lotutako ziurtagiria:

- Hona hemen eskaera honetarako gehieneko aurrekontua:
 - 1. LOTEA: Aholkularitza-zerbitzua komunikazioan eta BDCCren komunikazio-ekintzen ezarpena: HIRUROGEITA HAMABOST MILA EURO (75.000 €), gehi dagokion BEZa.
 - 2. LOTEA: MAGAZINE BDCC ataleko edukien mantentze-zerbitzua: HOGEI MILA EURO (20.000 €), gehi dagokion BEZa.
- Aurkeztutako eskaintzek ordainsarien eta egin beharreko gastuen zenbateko osoa adierazi beharko dute, dagokion BEZa sartu gabe.
- GAIA KLUSTERRAK baztertu ahal izango ditu neurriz kanpokotzat edo ausartegitzat jotzen diren eskaintza ekonomikoak, karatulako 16. klausulan zehaztutako irizpideari jarraituz.

Aurrekoarekin bat, proiektuaren gauzatze-faserako ziurtagiria egingo da, eta bi zatitan ordainduko da: % 50 proiektuaren hasieran eta % 50 gauzatze-epea amaitzean.

10. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Esleipen-irizpideak hornitzailea aukeratzeko orduan kontuan hartuko diren elementuak dira, eta BDCC taldearen (GAIA KLUSTERRA) beharrak hobekien asetzen dituzten eskaintzak identifikatzeko dira. Eskaintzak 0tik 100 puntura bitartean balioetsiko dira, atal bakoitzean aurrez ezarritako irizpideak eta haien puntuazioa kontuan hartuta. Lortu daitekeen gehieneko puntuazioa 100 puntu dira.

Puntuak, bai subjektiboak bai objektiboak, karatulako 15. eta 16. klausuletan ezarritako haztapen-irizpideei jarraikiz emango dira.

11. ESKAINTZARI BURUZKO KONTSULTAK

Eskaintza teknikoari edo agiriaren edukiari buruzko edozein argibide nahi izanez gero, idatzi barrio@gaia.es eta vidorreta@gaia.es helbideetara edo deitu (+34) 627 671 552 telefono-zenbakira.